

9.- IMMIGRAZIOA

Kulturen arteko Bizikidetzarako Bitartekaritza Programa

2014an desagertu egin da Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzua Gizarteratze Zerbitzutik, honako arrazoi hauengatik:

- a) 2013an Kultur Aniztasunerako Saila garatu eta antolatu da Donostiako Udalean eta bere gain hartu du Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuak egiten zituen hainbat zereginen ardura.
- b) Biltzen zerbitzuak, Eusko Jaurlaritzaren mendeko Gizarteratze eta Kultur arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuak, Bitartekaritza Zerbitzuak betetzen zituen hainbat zeregin betetzen ditu.
- c) Udalari ez dagozkion arrazoiak direla medio, koordinatzaileak ezin du jarraitu programarekin erlazionatutako jarduera profesionala garatzen.

Ondorioz, 2014ko martxoaren 31n bertan behera geratu zen programa. Hilabete horietan honako jarduera hauek garatu ziren:

- ◆ Kaleko lana Romm herritarrekin.
- ◆ Talde immigratuen gizarte egoerari buruzko diagnostikoa: hiriko espazio desberdinetan landa behaketa, eta Nepal eta Pakistango herritarrekin harremanak, talde horiei buruzko informazio zehatzagoa lortzeko.
- ◆ Etorकिन elkarrekin lankidetzak.
- ◆ Gizarte erakundeekiko koordinazioa eta lankidetzak.
- ◆ Banakako/familiekiko esku hartzea: 11 kasu.

Immigrazioarekin erlazionatutako beste jarduera batzuk

- ◆ Zuzendaritzako jendaurreko arretarako teknikariei informazioa eta aholkularitza ematea hainbat berrikuntzari buruz, hala nola, administrazio erregularizazioari, osasun txartelari edo etorkinengan eragina duen eta lanerako interesgarria izan daitekeen beste edozein gairi buruz.
- ◆ Gizarte Ongizateko eta beste udal sail batzuetako langileentzako immigrazioari buruzko prestakuntza koordinatzea. Zehazki, atzerritartasunaren legeriari buruzko saiok (68 partaide) eta hezkuntza jarraibideei eta Ekialdeko Europan eta Latinoamerikan senideak dituztenei buruzkoak (18 psikologo komunitario eta 22 hezitzaile).
- ◆ Bertoko biztanleentzako informazio neurriak koordinatzea: administrazio erregularizazioari buruzko informazio saioa egin da (57 partaide).
- ◆ Immigrazioaren lantaldea koordinatzea eta sustatzea. Gizarte erakundeak, Gipuzkoako Aldundia eta Udaletxea biltzen dira lantalde horretan. Hainbat gai landu dira, besteak beste: administrazio erregularizazioa, etorkinen baliabide eskaera, osasun arreta, etxebizitza baliabideak eskuratzeko aukerak eta atzerritarrei erakundeek kudeatzen dituzten baliabideak aurkeztea.
- ◆ Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Teknikarien Sarean parte hartzea, immigrazio teknikarien sarearen esparruan.